

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN,
MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

2020an Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak

2019ko abenduaren 9an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren 2020ko dirulaguntzen deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak, eta horien 2. atalean zehazten dira aurreikusitako eremuak eta dirulaguntzen ildoak; besteak beste, Merkataritza Zerbitzuan, 26. ildoak, "2020an Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko laguntzak" izenekoak. 2019ko abenduaren 23ko ALHAOn – 147. zenbakia – argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke – www.vitoria-gasteiz.org –, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere.

2020ko martxoaren 13an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udal-mugartean 2020an merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen arloko enpresa txikiak ezartzeko eta modernizatzekeo laguntza ekonomikoak emateko udal programa arautuko duten berariazko oinarriak eta deialdi publikoa.

2020ko maiatzaren 29an egindako bilkuran, alarma-egoera deklaratzeko enpresetan sortutako egoeraren aurrean, eta Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak hala proposatuta, 26. ildoko dirulaguntzen deialdia – "2020an Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko eta finkatzeko laguntza ekonomikoak" – arautzen zuten berariazko oinarriak aldatzea onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak. Horrenbestez, oinarri horiek argitara ematen dira, herritarrek jakinaren gainean egon daitezten:

1. oinarria. Dirulaguntzen ildoak

Enpresak sortzeko eta finkatzeko laguntzak.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

Gasteizko udalerrian enpresak sortu eta finkatu daitezela sustatzera bideratutako laguntzak emateko –elkarren arteko lehia baliatuz– baldintzak arautzea da oinarri hauen xedea.

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira laguntza ekonomiko horiek.

3. oinarria. Enpresa onuradunen betebeharrak

Merkataritza-jardueraren bat duten enpresa pribatuak izan ahalko dira oinarri hauetan arautzen diren laguntzen onuradun, beren izaera juridikoa edozein delarik ere, betekizun hauek betetzen badituzte:

- a. Helbide sozial eta fiskala Gasteizko udalerrian izatea.
- b. Diruz laguntzekoak diren jarduerak Gasteizko udalerriko lantoki batean zuzenean garatzea.
- c. Enpresaren jarduera nagusia EJZren epigrafe hauetan sartuta ez egotea:
64-67. Txikizkako merkataritza eta elikadura-zerbitzuak.
681. Hotel eta moteletako ostatu-zerbitzua.
682. Hotel eta pentsioetako ostatu-zerbitzua.

683. Ostatu eta apopilo-etxeetako ostatu-zerbitzua.

684. Hotel eta apartamentuetako ostatu zerbitzua.

691.1- Etxeko tresna elektrikoaren konponketa.

691.9. Kontsumoko beste ondasun batzuen konponketa, BISG (beste inon sartu gabeak).

755. Bidaia-agentziak.

971.3 - Arropak pasaratzea eta konpontzea.

972 - Ile-apaindegiak eta edertasun-zerbitzuak.

Ekonomia-jardueren gaineko zergan dagokien epigrafean izena emanda egon behar dute enpresek eskabidea egiten duten unean.

Ekonomia jardueren gaineko zergaren bi epigrafe edo gehiagotan alta emanda badago enpresa, onuraduntzat joko da baldin eta jarduera nagusia diruz lagundu daitezkeen multzo edo epigrafe baten barruan badago eta egiten dituen ekintzak jarduera horri badagozkie. Oro har, jarduera nagusia zein den zehazteko, horretarako erabiltzen den azalera erabilgarria hartuko da aintzat.

d. Mikroenpresa izateko bete beharreko betekizunak betetzea (hamar soldatapeko baino gutxiago izatea eta urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra bi milioi eurotik beherakoa izatea).

e. Lehendik ziren —5 urtetik gorako antzintasuna— enpresen izena edo forma juridikoa aldatze hutsetik sortutako enpresa berriak ez izatea.

f. Aurreko betekizunak betetzen ez dituzten enprekin loturarik ez izatea, edo haiek partaidetza nagusia ez izatea enpresan.

g. Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Gasteizko Udalarekikoak beteta edukitzea.

h. Nolanahi ere, baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkarte- edo lanbide-jarduerak burutzen dituztenak ere —elkarteak, lanbide-elkargoak eta abar—.

4. oinarria. Dirulaguntza jaso dezaketen ekintzak eta gastuak

Berriki sortutako enpresek —Ekonomia-jardueren gaineko Zergan 2015ko uztailaren 1.az geroztik alta emandakoak— gauzatzen dituzten proiektu eta inbertsioetarako emango dira laguntzak deialdi honetan.

2019ko ekainaren 1etik uztailaren 17ra bitarteko aldiari —biak barne— dagozkion fakturak joko dira dirulaguntzaren xede izan daitezkeen gastutzat, kontzeptu hauei dagozkielarik:

— Eratu eta abian jartzetik sortutako gastuak: erregistroa; notarioa —sozietatea eratzeko eskriturak eta estatutuak idazteko—, bazkideen ituna, aholkularitza, Udalaren jarduera-lizentzia lortzeko proiektu teknikoak, merkatuaren eta proiektuaren bideragarritasunaren azterketa.

— Komunikazio-gastuak: irudi korporatiboa, webgunea eta sare sozialak diseinatu eta garatzea.

— Prototipoen diseinuarekin eta fabrikazioarekin lotutako gastuak, baita jabetza industrialak eta izen komertzialak babesteko gastuak ere (patenteak eskatzea eta markak erregistratzea).

— Kalitatea, ingurumena, berdintasun-planak, energia nahiz erantzukizun soziala kudeatzeko sistemak ezarri eta horien ziurtapena lortzetik sortutako gastuak, komunzki onartzen diren estandar edo arauen arabera (bazter uzten dira ziurtapena lortzeko aholkularitzarenak ez beste gastuak —ebaluazioa, prestakuntza, egokitzea, auditoretza...—).

- Enpresa sortu eta finkatzeko beharrezko diren eta enpresaren jarduera garatzearekin zuzenean lotuta dauden aktibo finko berriko elementuetako inbertsioak.
- Jarduerarako berariazko instalazio teknikoak.
- Proiektuari lotutako makineria, tresnak eta bestelako ekipamendu-ondasunak.
- Altzariak.
- Informatika-tresnak eta aplikazioak.

Diruz lagun daitekeen gastuetakoren bat 15.000,00 eurotik gorakoa bada (BEZik gabe), edo hornitzaileak dirulaguntza eskatzen duen enpresarekin loturarik badu, efizientzia- eta ekonomia-irizpideekin justifikatu beharko du onuradunak enpresa hornitzailearen hautaketa. “Lortura duen enpresa” kontzeptuari dagokionez, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 42.3 artikuluko definizioa erabiliko da.

Aurkeztutako proiektuek gutxienez diruz lagun daitekeen 5.000,00 euroko inbertsioa izan beharko dute.

Ibilgetu materiala leasing bidez erosten bada, kuotetarako eman ahalko da dirulaguntza, interesak eta gastuak alde batera utzita.

Behar bezala jaulkitako fakturen bitartez egiaztatu beharko dira egindako inbertsioak, lehenago adierazitako datetan.

2020ko irailaren 17a baino lehen behar bezala justifikatuta dauden ordainketek bakarrik jaso ahalko dute dirulaguntza.

5. oinarria. Dirulaguntzaren xede izango ez direnak

Oro har, honako hauek ez dira diruz lagunduko:

- Proiektuak ezartzeko enpresak bere gain hartutako material-, prestakuntza- eta langile-gastuak.
- Aktibo finkoko inbertsio hauek: aktibo ukiezinak (jabetza industrial eta informatika-softwarea izan ezik), eskualdatze-eskubideak, frankizia-eskubideak, lursailak, eraikinak, berrikuntzak, eraikuntza eta instalazioen proiektuak (elektrizitatea, segurtasuna, girotzea, ura eta abar), garrario-elementuak, telebistak, telefono-terminalak eta antzekoak.
- Enpresaren ohiko funtzionamendutik sortutako gastuak, edo etengabea edo aldizkakoa den jarduera bati dagozkionak: bulegoko materiala, mantentze-lanak, piezak konpondu edo ordeztzea, tresnak berritzea, promozio-ekitaldiak, bidaiak, publizitatea, otorduak, hornikuntzak, alokairuak eta antzekoak.
- Patenteak, erabilgarritasun-ereduak eta industria-diseinuak berri edo aldatzeko gastuak.
- Adierazitako jardueri dagozkien zerga edota tasak, gainordainak eta administrazio-zigorak.

6. oinarria. Baliabide ekonomikoak

“Enpresak sortzeko eta finkatzeko laguntzak” izeneko 08.21.4331.489.67 partidaren kontura finantzatuko dira deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak: 126.700,00 euro.

7. oinarria. Indarrean jartzea eta eskabideak aurkeztea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek —aldeztatik Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen laburpen-iragarkia argitaratuko da—.

Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2020ko uztailaren 17an bukatuko.

8. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa, eta, hortaz, aurkezten diren proiektuen arteko alderaketa egingo da.

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan arautzen diren laguntzak kudeatzea. Hautatze- eta jarraipen-batzorde bat eratu da horretarako, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zuzendariak, Enpresen Zerbitzuko buruak eta Merkataritza Zerbitzuko buruak osatua.

Batzordeak proposamena egin ondoren, Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia dela medio eman edo ukatuko dira enpresak sortzeko laguntzak, horretarako ahalmena Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzeko aukera gorabehera.

9. oinarria. Ebazteko epea

Gehienez sei hilabeteko epean ebaztiko da prozedura, deialdia ALHAOn argitaratzen dene-tik. Epe hori berriazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, dirulaguntza eskuratzeko eskabidea ezetsizat joko da.

10. oinarria. Balioespen-irizpideak

Irizpide hauek hartuko dira aintzat proiektuak balioesteko:

1. Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoa: 30 puntu gehienez.

Proiektuaren definizioa eta garapen-maila balioetsiko dira atal honetan, alderdi hauek kontuan harturik: talde sustatzailearen konpromiso-maila; bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa; proiektuaren kalitatea, analisia eta garapena, eta eskatutako agiriak hasieratik sartzea.

2. Proiektuaren berrikuntza-maila eta enpresa-potentziala: 30 puntu gehienez.

Enpresa berriaren originaltasuna eta bereizketa hartuko dira kontuan, baita merkatuaren edo jarduera-sektorearen egungo egoerarekiko berrikuntza maila.

Enpresak bere jardueran gizartearen, iraunkortasunaren eta ingurumena babestearen arloko irizpideak kontuan hartzea ere balioetsiko da.

3. Talde sustatzailea eta sortutako enplegua: 20 puntu gehienez.

Sustatzaileen prestakuntza eta esperientzia balioetsiko dira atal honetan, baita sortutako enplegua ere.

4. Egindako inbertsioak: 20 puntu gehienez.

Enpresa abian jartzeko egindako inbertsioak balioetsiko dira atal honetan, diruz laguntzeko modukoak direlarik.

Aurkeztutako proiektuak dirulaguntza jasotzerik izan dezan, gutxienez 50 puntu eskuratu beharko ditu, adierazitako irizpide eta puntuazioen arabera.

11. oinarria. Proiektuak balioestea eta dirulaguntzaren zenbatekoa

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik. Hortaz, alderatu egingo dira aurkezten diren proiektuak, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko, 10. oinarrian finkatutako balioespen-irizpideen arabera.

Eskabide guztiak balioetsi ondoren, honela kalkulatu da dirulaguntzaren portzentajea: gehieneko puntuazioa lortzen dutenek dirulaguntzaren gehieneko portzentajea jasoko dute (ehuneko 40). Dirulaguntza jasotzeko gutxieneko puntuazioa dutenek, berriz, dirulaguntzaren gutxieneko portzentajea jasoko dute (ehuneko 20). Puntuaziorik handienaren eta gutxienekoaren arteko gainerako proiektuei proportzio lineala aplikatuko zaie dirulaguntzaren ehunekoa kalkulatzeko.

Guztira lortutako puntuazioaren arabera ezartzen den hurrenkera horri jarraiki emango dira dirulaguntzak, harik eta erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte. Berdinketa egokituz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, 10. oinarriko 1. atalean lortutako puntuazioa hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko. Berdinketak jarraituz gero, 2. atalean lortutako puntuazioa hartuko da aintzat. Azkenik, berdinketak jarraituz gero, lehenago aurkeztutako eskabideari emango zaio lehentasuna, eskabideari Gasteizko Udalaren Erregistroan sarrera noiz eman zaion kontuan izanik.

Baldin eta erabilgarri dagoen saldoa ez bada aski kreditua agortzen duen dirulaguntza ordaintzeko, geratzen den kreditua emango zaio horri.

Enpresa onuradun eta urte bakoitzeko 8.000,00 euroko dirulaguntza emango da gehienez.

Enpresa eta urte bakoitzeko dossier bakarra tramitatuko da.

Aurreko deialdietan laguntza bera jaso izan ahalko du eskabidea egiten duen enpresak, baldin eta lehenik emandako laguntzaren zenbatekoa 15.000,00 eurotik gorakoa ez bada.

12. oinarria. Ordaintzeko modua

Dena batera ordainduko da laguntza, deialdia ebatzi ondoren, eta 15. oinarrian adierazitako moduan justifikatu ondoren.

13. oinarria. Enpresa onuradunen betebeharrak

Laguntza jasotzen duten enpresek betebeharrak hauek izango dituzte:

– Udalaren egiaztatze-ekintzen mende jartzea, baita bertako Kontu-hartzaitza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende ere.

– Udal dirulaguntza honetarako aurkeztutako gastu beretarako bestelako laguntza edo dirulaguntzarik eskatu edota jasoz gero, udalari jakinaraztea.

– Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, udalari jakinaraztea.

– Laguntza eskabidea ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta agiri osagarri oro Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren eskura jartzea.

– Dirulaguntza eman ondoren, zertarako eman den, horretara bideratzea ekonomi jarduera gutxienez bi urtez. Adierazitako epe hori igaro aurretik jarduera eten egiten bada, enpresa onuradunak jakinarazi egin beharko dio udalari, eta emandako dirulaguntza osorik edo horren zati bat itzuli, jarduera bertan behera geratzen den egunetik 2 urteko epe hori —dirulaguntza eman zen egunetik kontatuta— betetzeko falta den denborarekiko proportzioan. Salbuespen gisa, ez da eskatuko jaso den dirulaguntza itzultzeko negozioa ixteko arrazoia jabearen gaixotasun larria edo heriotza bada.

– Diruz lagundutako aktiboak gutxienez bi urtez edukitzea enpresan, erosten diren egunetik (fakturan ageri den datatik).

14. oinarria. Bestelako laguntza eta dirulaguntzekiko bateraezintasuna

Programa honetan aurreikusten diren laguntzak ezingo zaizkio gehitu gastu beretarako bestelako laguntzei.

15. oinarria. Nahitaezko agiriak

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie oinarri hauen bidez araututako dirulaguntza-eskabideei:

- Eskabide-orria eta zinpeko aitortpena (I. eranskina).
- Pertsona fisikoen kasuan: nortasun-agiriaren fotokopia.
- Pertsona juridikoen kasuan:

IFKren kopia.

Enpresa eratzeko eskrituren kopia.

Ordezkatze-ahalmenen kopia.

Ordezkatze-ahalmena duen pertsonaren nortasun-agiriaren kopia.

- Soldatapeko langilerik izanez gero, azken hilabeteko TC2.
- Enpresak soldatapeko langilerik ez badu, azken hilabeteko autonomo ordainketaren ordainagiria.

– Enpresa proiektua, honako hauek barne: jardueraren oinarrizko datuak azaltzen dituen txostena, bazkideen curriculumak eta ekonomi eta merkataritza bideragarritasunaren azterlana. Behar izanez gero, Espainiako Patente eta Marken Bulegoan (OEPM) marka erregistratzeko eskabidea.

- Fakturen kopia.

– Leasing kontratuaren kopia, ibilgetua formula horren bitartez erosi bada, baita kuoten kopia ere.

- Aurkeztutako fakturen ordainketaren banku-egiaztagiriak.

Ordainketa-egiaztagiriak aurkezteko epea 2020ko irailaren 17an bukatuko da.

Gasteizko Udalarekiko zerga-betebeharrak betetzeari dagokionean, ofizioz begiratuko da pertsona edo enpresa eskatzailea egunean dagoen.

Eskabidea aurkezteak Gasteizko Udalarari zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko ziurtagiriak zuzenean eskatzeko baimena ematea dakar berekin (I. eranskina). Hala ere, enpresa eskatzaileak berariaz ukatu ahal izango du baimen hori. Horrela bada, Arabako Foru Aldundiarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak ordainduak dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Enpresa eskatzaileak ez badu esleitura Gizarte Segurantzaren sistemako inongo erregimeneko kotizazio-konturik, bertako bazkide guztiek egon beharko dute egunean Gizarte Segurantzaren.

Ez da onartuko enpresa eskatzaileak hornitzaileari faktura ordaindu diola argi eta garbi gera dadin nahikoa daturik jasotzen ez duen banku-egiaztagiririk. Oro har, ez dira egiaztagiri gisa onartuko internet bidez eskuratutakoak, banku-erakundeak balioztatuta edo zigilatuta ez badaude.

Jarduera burutu eta justifikatzeko epea bukatzen delarik egindako gastuen zati bat baino ordaindu ez bada, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuko da, kobratzeko eskubidea galtzeari dagokionez.

16. oinarria. Akatsak zuzentzea

Dirulaguntza-eskabideari ez bazaizkio deialdian galdatutako agiriak eransten, hamar eguneko epea emango zaie eskatzaileei falta zaizkien agiriak aurkezteko —Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua ildotik—, eta halaber ohartaraziko hala egin ezean eskabidea bertan behera utzitzat joko dela.

17. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua

Deialdi hau dela-eta egiten diren jarduketak gauzatzean, une oro beteko da datu pertsonalen babesari buruz indarrean dagoen legedian xedatutakoa.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 1ean

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI

I. eranskina: eskabidea eta zinpeko aitortpena egiteko orria

<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/96/57/59657.pdf>